

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

134/2018 Foru Agindua, apirilaren 24koa, onartzen duena 2018an material ez-suntsikorra erosteko Arabako kirol federazioentzako dirulaguntzen deialdian egindako hutsen zuzenketa

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren martxoaren 12ko 96/2018 Foru Aginduaren bidez, onartu zen 2017ko uztailaren 1etik 2018ko ekainaren 30era bitarteko aldian kirol material ez-suntsikorra erosteko Arabako kirol federazioentzako dirulaguntzen deialdia. Foru agindu hori ALHAOn 38. zenbakian argitaratu zen, 2018ko apirilaren 4an.

Deialdia argitaratu eta gero, hutsegite bat aurkitu da seigarren oinarrian (“Aurkezteko epea”), eskabideak aurkezteko epealdiaren egunetan hain zuzen.

Kirol Zerbitzuaren buruak emandako txostena aztertu da.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea 2017ko uztailaren 1etik 2018ko ekainaren 30era bitarteko aldian kirol material ez-suntsikorra erosteko Arabako kirol federazioentzako dirulaguntzen deialdiko seigarren oinarrian egindako hutsen zuzenketa. Deialdi hori Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatuaren 96/2018 Foru Aginduaren bidez onartu zen.

Hau dioen lekuan:

Seigarrena. Aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea 2018ko apirilaren 1ean hasiko da eta apirilaren 30ean amaituko da.

Hau esan behar du:

Seigarrena. Aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea 2018ko apirilaren 1ean hasiko da eta uztailaren 13an amaituko da.

Bigarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Gainerakoan, bere horretan eustea martxoaren 12ko 96/2018 Foru Aginduari.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko apirilaren 24a

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua
IGONE MARTÍNEZ DE LUNA UNANUE